

## **BIZITZA EDERRA DA**

Hitzak eta musika: Olatz Zugasti

Zure ele amultsuak  
entzun ditut berriro  
oihartzun baten modura  
ni lilluratu asmoz

Bizitza ederra da  
utzidazu nere minen  
zailtasunen iturrira  
bakarrik iristen

Naturak irakatsi  
dit naizena zaintzen  
ta nola helburu bakoitza  
jarreran bizi den.

## **BAKEAN ALA OTZANDUA**

Musika eta Hitzak: Olatz Zugasti

Leihoan behera euria  
ametsak nola gogoan  
irriño bat egiten  
saiatu zara ispilu aurrean,  
ezpainetan gorria  
hain poliki jarririk,  
jendeek hala esan dezaten  
panpin bat duzula iduri

ahuenka zatozkit baina  
zertarako balio dizu  
bihar berriz zure orbana  
estali egin behar baduzu.

Karrika alai eta jendetsuak  
menderatzailen jolaslekua  
eta zu ezikusiarena eginez  
bakean... ala otzandua?

Kanpoa, berba, itxura  
babes ohi dituzunean  
besteek nahi duten mintzaira  
ahon daukazunean  
ez ote atxikita  
zaudela gezur kalakan  
ez ote nahikoa argi  
aske behar duzula izan...?

## **KONDAIRA**

Musika eta hitzak Olatz Zugasti

Maiz iragan kondaira duzu ahoan  
ikasi ote duzu ikusten oraina,  
gibelean hartzen senaren uhaina,  
etxerat itzultzeko behar duzun  
dohaina?

Izanagatik oroitarri, mintzaira  
orainik ezean zer da kondaira...?

Maiz ospakizunean zara hunkitzen  
baina izateko baimena duzu  
eskatzen,  
zure biziaren lema uzte al dizu  
hartzen,  
aukera arrixkuen aurrean adi  
egoten?

## **UR GOIENA, UR BARRENA**

Hitzak eta musika: Herrikoia

Izotzetan elurretan abenduko gau  
luzeetan  
bertze guziak ohean eta gu gaixuok  
oinutsetan

Etxe honetan sar dadila bakearekin  
ondasuna  
bakearekin ondasuna, onarekin  
osasuna

*-Arantzazu zer dakarzu?-Ur goiena,  
ur barrena,  
ur goiena, ur barrena, urteberri  
egun ona*

Etxe hontako nagusi jaunak poltsea  
txintxirinduna  
poltsea txintxirinduna zirarrez  
ezpataduna

Gure baratzean berar ona, hark  
botatzen du usai ona  
goian goian irargia, erdi erdian krabelina

## **AGUR ETA OHORE**

Hitzak: Olatz Zugasti

Musika: herrikoia/Brendan Graham

Ur gaina ildokatuz  
kaioa ohi da kantuz ari  
gure eskerrik beroenak  
gaur nahi dizkizue zuei ageri.

Eraman ditzazuen  
gure izanaren oroigarri  
agur eta ohore, zuen  
ispaster hontara ongietorri.

## **BIZITZAREN BAITATIK**

Hitzak: Pako Aristi

Musika: Olatz Zugasti

Erlojuaren orratzak gure aspermena  
neurtzen zuten amesgaizto bihurtu  
zirenean.  
ihesi joan ginen urrun, hain urrun  
non  
geure burua aurkitu genuen.

Han zegoen herabe eta uzkur gure  
izaera  
nortasun mozorroa jantzita  
ispiluetan biderkatuz  
gure misterio gosea

Inongo jainkok ez gintuen aukeratu  
ta ez dugu bere errukia irabazi  
beharrik izan.

Ez da bizitza egunero igarotzen  
dena  
gu baizik bizitzaren baitatik  
goazenak  
betikotasunari zirtzinik ere,  
hotzikara txikienik eragin gabe  
gure deusezean unibertsoa  
bagerala ahaztu zitzaigun egunaren  
bila.

## **SENA**

Hitzak eta Musika Olatz Zugasti

Maite dut ene kabuz  
bide mugagabeen  
joatea ta aintzin gibelera  
begiratzean  
maite dut hor zaudela  
jakinez bizitzea  
nabilen lekuan nabilela  
gogo bizkor sentitzea

Ibaiak nahiz mendiak  
moiladun hiri haundiak  
ezagutu ahal ditut bainan  
aberasten nauen guztia  
nirekin zoazen hori  
ibiliz bizia  
mendean hartzen banaute ere  
galtzear bada argia...

Sena hor zaudelarik  
nork egin iluna nigan  
nola alegiak  
ikusi ez bidartean?,  
ernatu ohi zara  
nola arrosa goizean  
kalaka arteko  
isilune bakoitzean.

Ez da unerik, ez lekurik  
ezaguna etzaidanik  
ez unibertsal, mundutar  
zinezko jarrerik  
baldin eta ez badator  
norbera aitortzetik  
hedatu ohituren gaindi  
eta zure eskutik

## **JOKO ARAUAN**

Musika eta hitzak: Olatz Zugasti

Eraso txiki guztiak  
haundien zatiak besterik ez dira  
ezin hoiei banaka aurre egin  
hoiengandik ihes egin

mintzaira arrotzean  
ala berdin zeurean  
zer duzu erabaki ahal  
zeurea ez den joko arauan...?

Ingurua alde ez duzula  
senti duzunean,  
-zer egin behar dut?-  
galdetzen didazunean  
ezin dizut erantzunik eman  
eraso txikiak utzi eta  
haundia ikusten  
ez duzun artean.

Irabazi itxaropena  
ohi dizute berpiztu  
guretako joko ta eraso  
gauza bera ez al dituzu?  
Eskubideez, lamien kantuez  
nahi dutenean solastu  
gibela eman, errepidea hartu  
paisai ederrak dauzkagu.

## **BAT, BIGA, HIRUR...**

Hitzak eta musika: Olatz Zugasti

Hitz ederrak zabaldu dira  
nola lurrin kutsagarria haizean  
eta garunak bildu dituzte  
ongizate langerosan.  
Izaera aunitzekoak omen diren  
Jakintsuek berdintasunean  
Hitz ederrak baizik ez dituzte  
Galdua duten eztabaidan

Eder bezain zuriak  
hitzetik hortzera esanak  
itxaropen laino itxuan sartu  
arteraino denak

Bat.big. hirur,laur,bortz...,

nork ederragoa bota lehian  
betiko hesiaren barnean  
aniztasun jai alaian (ustezko jai  
anitzean)

Hitz ederrak esanahiez hutsak  
unibertsal aldarrikapenak  
ezer ez eta aldi berean  
hainbeste diotenak  
pentsalari ahalguztidunek  
jendeen ahotan jarriak  
azken gotorlekuko ateak  
irekiko dituztenak

## **MEZULARIA**

Musika: Brendan Graham

Hitzak: Olatz Zugasti

Gauak zuen doinu hori  
idatzi arazia  
mezu bat bailitzan zure eskutik  
zait iritsia

amets bilakatu zara  
mirotz hegaldia  
bizi jarioz margotzen duzu  
ene ehun xuria.

Lorraz argia duzu  
nigan utzia  
uhinen gaindi zoazen  
mezularia.

Entzun dut daramazula  
oroaren hazia  
zugan direla izarrak  
hegoa eta eguerdia

## **NI GATIBU HARTZEKO**

Musika: herrikoia/Olatz Zugasti

Hitzak: Olatz Zugasti

Era aunitz dago ni gatibu hartzeko,  
arma mota ugari amore emateko  
suzkoak eta hitzezkoak  
eta ukamena, denetan bortitzena.

Zuk uzten dizkidazun bideetarik  
bat zein bertzea hartzen dudalarik  
igartuko dira nere begiak  
eta oharmena, ene ihesbiderik  
onena.

## **ISILPEKO ATEA**

Musika eta hitzak: Olatz Zugasti

Inguma bezela agertu zinen  
deus espero etzuten nere begietara  
kendu zaidan presenta zaitut orain  
nahi ta ezinaren oroimena

Isilpeko ate bat nuen ikusten  
nondik barna gure grina iraganen  
eta alde ez ditugun arauengandik  
salbu  
egiak elkarri erranen

Utzidazu orain agur esaten  
eman gabeko muxu bakoitzari  
utzidazu orain agur esaten  
izan eta izan ahal zenari  
eta iragaiten denari

Kantu eta ipun zaharren liluran  
su pasterrean pausatuko ginen  
ta ohartuko iraganari begira  
kondaira egitea zein zaila den.